

LIBURUAK

JUAN SAN MARTIN

JOSE URIA IRASTORZA - Sagardoa. Donostiako Aurrezki Kutxa.
21 × 26,5 zm., 287 orr. Donostia, 1978.

Urriaren 27an eman zen 1978. urteko Andima Ibiñagabeitia deritzan saiaketa sariaren berri. Aurtengoa Jose Uriak eraman du, *Sagardogintza Euskal Herrian* azterlanarekin. Bigarren saria, Akus-tikaz, Iñaki Azkunek eraman zuen.

Jakitun ginen aspalditik zetorrela Jose Uria Irastorza tolosarra sagardogintzaren ikerketaz eta honegatik pentsatu nuen lan horren frutu zela sari hura; baina, bai zera, ordurako beste lan handiago bat burutua zen eta Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokan er-
tzen duen liburu sarien artean bereziena aurkitu genuen Donostiako Aurrezki Kutxak atera berri duen "Sagardoa" deritzana. Liburu apaina, bai azalez eta bai mamiz. Han aurkeztu zirenen artean behinikpehin.

Irakurleak konturatuak egonen dira, nere artikulua hauetako gai asko galde-erantzunezkoak direla. Zenbait irakurlek eskatzen bai dizkidate halako edo holako gaiez informatzean nahi dutela edo komeni dela. Arrazoi honegatik bete izan ditut zenbait artikulua jendeak nahi zuenari ihardetsiz. Eta holako lanez jabetzen naizela-
larik, ez zait beti hain erraza izaten berri bilketarako iturririk jatorrenetara heltzea, hontan ahaleginak eginarren ere. Dena dela, gogoz betetzen dut euskal kulturaz edo historiaz herriko irakurleak jakin gura duenaz idaztea.

Betekizun hoietakoa zen, adibidez, "Sagarra eta sagardoa noiztik?" zeritzana (ikus, *Gogoz* liburuaren 120/24 orrialdeetan, eta EGAN-en eman nuen lan luzeagoa). Baina nik orduan eman nituen berriak uskeriak ziren Jose Uriak argitaratu duen liburu honen aurrean.

Sagarrondoak badu gure historiarekin ikustekorik. Aintzina zenbait herritako hamarrenak ordaintzeko sagarra eta sagardoa erabiltzen zirenez, sagarrondoaren ondasunak estimu handikoak zoren. Gaur egun, pinudi ustelok jan dute gure baso jatorra. Haritz, pago ta gaztainarekin bateratsu doa sagarrondoa. Hala ere, oraindik orain, urte garai honetan sagarra dugu bertako fruturik ederrena. Aurtengo udazken honetan egualdi ona sobera dugu, baina bestelakorik ez. Honegatik, gutitan bideratzen zaigu aurtien baino hobeto gure herriko esaera zahar hura: "Hau da egualdixa, sagardua egiteko, dolaria bageunka; sagarrrik ez eze". Hala bai da, gauza bat eduki eta bestea falta: "txerrikumea errialian eta errialik ez".

Sagastien lehen aipamena, 1014. urtean, Ernaniko lurraldeak Leireko Monastegira eskaintzeaz agertzen dena da. XII eta XIII. mendeetako esku-izkribuetan maiz aurkitzen dira sagastiak holako eskaintza edo donazioetan. J. Uriak berri eta zehetasun asko ematen ditu. Garai hartan, Atlantika itsasaldera urak ematen dituzten lurraldeetan oso hedatuak zeuden sagastiak.

Geroko urteetatik dakigunez, sagardogintzarako eta frutu osasungarritzat ez ezik, sendagarritzat ere hartua zen sagar errea. Tolosako hirian Miraballesko jaunari hezueria sendatzeko eskaintzen zioten 1619an, liburuaren 74. orrialdean ikus dezakegunez; baina, batez ere, XV. mendeko eresietan haurra egiten zuen emakumezko erdituarentzat eskaintzen zen. Andre Milia Lasturko haurgintzan hil zelarik, hala zion bere aizpak:

Zer ete da andra erdiaren zauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Ala baña kontrario da Milia:

Azpian lur otza gañean arria.

Agiri ugariekin batean produkzio ta salmentan berri ere ematen digu. Aymeric Picaud erromesagandik hasita gainerako arrotzak historian zehar eman dituzten berriak ere jasoak ditu. Eta, nola ez, gure foruetan sagardoa nola azaltzen den legepean jarririk.

Toki-izen eta deiturretan sagarrondoaren berriak, sagarra eta sagardoa kanta zahar, bertso berri eta olerkietan, denetarik bildu du lehen partean. Puntu batean, gure literaturaren historiaz huts egite bat du, Oihenart hemeretzigarreneko Artolatarren epokara ekarriz. Zeren, Oihenarte 1592an sortu eta 1675ean hil bai zen.

Ondorean sagarra bera frutu den aldetik ikertzen du. Lan teknikoa du bigarren parte hau eta hogetahamabi sagar mota kolorezko argazkiz eta bakoitzaren adierazpenez dakarzki. Teknikoki adierazten du sagardogintza ere, xehetzeko makinatik tola-erata, sagar biltzetik upeletara arte, sotoak eta sagardotegiak aurkeztera arte. Sagastiak zaintzeaz eta hauen onuraz, sagarrondoak bere sustraietatik erneaz hosto, lora, ernalketa eta frutua heldu arte behar dutenez: berritzeak, txertaketak eta gainerako ardura guztiak zehatz mehatz azaltzen ditu liburuaren egileak.

Azkenean bibliografia aberatsa ematen digu, eta, bukaeraz, gaztelaniazko eta frantsesezko laburpena, gai guztia zertaz den adiaraziko diguna.

Urte askoren langintza arduratsuz burututako liburu ederra horrela betea dago, hitzaurrean eskaini bezala, egilearen asmoa frutu bihurturik: "Gaurko Euskal Herria, aurrepenean murgilduta doa esango digu, eta, honelako zerbait behar duela, uste dugu. Behar du, noski, asmaketa modernu eta konplikatuak gidaritzen jakitea. Baina, ohitura zaharrak nolakoak ziren ez ahaztea ere, behar du. Bata eta bestea, biak, behar ditugu.

"Aurreraka, arrasto berria irikitzen ari garenean, noizean behin, atzera begiratuaz. Atzean utzi ziguten arrastoa —gure arbasoen egindakoa, alegia— zuzena dela ahaztu gabe. Garbia.

"Ezagutu eta ikas ditzagun bai, gaurko makina eta teknika aurreratuenak. Baina jakin dezagun, esate baterako, sagardo berri bat patxadan dastatzen.

"Orduan bai, lortuko genukeela euskaldunok, gaurko munduak gizonari esijitzen dion tenplea. Herri baten nortasuna lortzeko —Euskal Herriaren nortasuna—, hai beharrezkoa den tenplea."

Oroi bertsolarien garai bateko unibertsitateak sagardotegiak izan zirela, sagardoa dastatuz eta bertsoz jolastuz ibiltzen ziren garaietan, egilearen herritarra genduen Ramon Artola gogoangarriak kantatutako Sagardoaren grazia deritzan bertsoetatik dasta gai hontaz aritzen garen bakoitzean:

*Bedeinkatua izan dedilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
edaten duen guziya;
edari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au edan gabe egotia da
neretzat penitentziya.*

ANTONIO ZAVALA. Afrika'ko gerra (1858-1860). Auspoa Liburutegia, 1977. 18 × 10,5 zm.; 159 orrialde.

Antonio Zabalak maiz eskaintzen dizkigu bertsolarien liburu ezagugarriak Auspoa liburutegiaren bidez. Gai baten inguruzko azken bilduma "Afrika'ko gerra" deritzana dugu; eta bertsoez gainera agiri asko ematen ditu Afrikako lehenbiziko gerra hartaz. Lehenengo gerra hura 1859-1860 urteetan izan zen. Karlisten gerrate bien bitartean.

Bertso paper bilketa toki askotatik egin du A. Zabalak, baina batez ere Chicago-ko New Library-n L. L. Bonaparte-ren agirien artean gordetzen zirenetatik. Frai Jose Antonio Uriartek bialtzen zizkion Bonaparte printzeari. Uriarte praile frantziskotarrak berberak gerra honi buruz jarritako bertsoak ere argitaratzen ditu.

Historian beti iduritu zaigu ilun samarra gerra hura, bai gerra egiteko arrazoien aldetik eta bai "Tercios Vascongados" zirelako haiek parte hartzeaz ere. Gipuzkoak 1.136 mutil prestatu behar izan zituan, eta antzera Arabak eta Bizkaiak.